Dinamizaziorako fitxak:

‘Biziraun dugun emakumeok’

dokumentala ikustea

JARDUERAREN HELBURUA

1. Honako kontzeptu hauek sakon aztertzea: arraza/etniagatiko eta generoagatiko bereizkeria, estereotipo eta aurreiritzi sozialak, haien arteko elkarlotura eta giza eskubideetan duten eragina.
2. Indarkeria sexualak gatazketan duen eraginari buruz eta horri amaiera emateko orduan herritar global moduan egin dezakegunari buruz hausnartzea.
3. Euskadin gertatzen diren sexu-indarkeriak zeintzuk diren identifikatzea.
4. Salaketarako edota elkartasunerako mezuak egite eta zabaltzea, errealitate horren eraldaketan eragiteko.

TAILERRERAKO BEHARREZKO MATERIALAK

- https://lasquesobrevivimos.farmamundi.org/ webgunea.
- Pantaila eta proiektorea.
- Protagonisten 6 argazki, bana.
- Emakumeen eta haien testuinguruaren azalpena.
- Landu beharreko gaiei buruzko laguntza-materiala.
- Mugikorrak edo ordenagailu eramangarriak, sareetako kanpaina sortzeko.
- Papera eta boligrafoa, sortzen diren hausnarketan idazteko.
- Errotuladoreak, kartulinak edo bestelako materialak.

1.JARDUERA – NORTZUK DIRA EMAKUMEAK?

15 min.

Donald Light, Suzanne Keller eta Craig Calhoun soziologoen esanetan, **“haien benetako edo irudizko ezaugarri sozialengatik pertsonak onartzeko edo gaitzesteko dugun aurretiko jarrera irmoa”** da aurreiritzia. Hartara, isuri kognitiboa gertatzen denez, uste dugu talde bat modu zehatz batekoa dela honako ezaugarri hauetan oinarrituta: **arraza, etnia, generoa, erlijioa edo orientazio sexuala**. Hori dela eta, bereizkeriazko jokabidea edo jarrera sortzen denez, berdintasunezko tratua ukatzen diogu kasuan kasuko taldeari edo pertsonari, desberdintzat jotakoak baztertzen ditugulako edota gizatasuna kentzen diegulako.

Lehenengo eta behin, aurreiritzi horiek zein diren zehaztu nahi dugu, eta, ahal den neurrian, desegin egin nahi ditugu, dokumentala bera generoagatiko eta etniagatiko inolako aurreiritzitik gabe ikusi ahal izateko eta haien lekukotasunekin enpatia izaten saiatzeko.

EGIKARITZEA

Taldeei protagonisten irudi bana ematea, haien historia irudikatu dezaten.
Zer iradokitzen dizute emakumeok?, zer igortzen dizute?, badute ikasketarik?, lan egiten ote dute?, nola irudikatzen duzu haien bizitza?, nolako zaletasunak dituzte?, non bizi ote dira?

EMAKUMEEN HISTORIAK

JEANINE NYIRAMENYANA: Kongoko Errepublika Demokratikoan gobernuko Immigrazio Sailean lan egiten zuen, eta eskola bateko jabekidea zen senarrarekin batera. Gaur egun, emakume ekintzaileen talde bateko liderra da Kenyako Kasarinin bizileku daukan giza egonlekuan.

ELYSEEN MBUYI MUFUTA: Kongoko Errepublika Demokratikoan, klasea ematen zuen Bigarren Hezkuntzako eskola batean, eta joskintza irakasten zuen bertan. Gaur egun, Kenyako gobernuaren programa baten parte da, eta Kongoko Errepublika Demokratikotik bizirik atera diren beste emakume batzuk gaitzen eta ahalduntzen ditu.

2.JARDUERA – DOKUMENTALA IKUSTEA

Ikustea 25 min + eztabaida 30 min

DOKUMENTALAREN HELBURUA

Gatazka armatuetan emakumeen eskubide sexualak urratzen direla agerian jartzea. Dokumentala salaketarako leihoa da, eta nazioarteari eskatzen dio gatazka armatuetan sexu-indarkeriarekin amaitzeko neurri eraginkorrak bilatzeko; krimen horiekin amaitzen duten benetako lege operatiboen bidez, esaterako.

Dokumentala ikusi baino lehen - 5 min.

Lekukotza horiek sexu-indarkeriak gatazka armatuetan dituen ondorioetan sartzen gaituzte, Kongoko Errepublika Demokratikoko gatazkatik abiatuta. Ikasleek testuinguru honi buruz zer dakiten labur jakiteko, galdera hauek proposatzen ditugu:

- Badakizue zein den Kongoko Errepublika Demokratikoko gaur egungo egoera?
- Gaur egun Afrikan gertatzen ari den beste gerraren baten berri duzue?
- Zuon ustez, komunikabideetan zergatik ez zaie hainbesteko garrantzia ematen horrelako gatazkei?

Dokumentala osorik ikustea - 25 min.

Dokumentala ikusi ondoren - 30 min.

Hausnarketa kolektiboa, talde txikietan edo denok batera. Aldez aurreko prestakuntza gisa, Eunice Ngwawe-ren eskutik informazio gehiago aurki daiteke hemen:
https://lasquesobrevivimos.farmamundi.org/contexto/

HAUSNARKETARAKO GALDERA MULTZOA

1.MULTZOA

1. Nola sentitzen zarete emakume horien lekukotasunak entzun ondoren? Zuontzat zer izan da deigarriena? Esaldi edo hausnarketaren bat nabarmendu nahi zenukete?
2. Zuon ustez, zein izan daitezke horrelako indarkeriak jasan osteko ondorio nagusiak?
3. Zuon ustez, zein dira haien premia berehalakoenak? Haien lekuan jartzen saiatu. Zuon ingurukoek nola erantzutea gustatuko litzaizueke?

2.MULTZOA

4. Gerrako arma ote da indarkeria sexuala? Zergatik? Gerrako testuinguruetan baino ez da gertatzen indarkeria sexuala?
5. Sexu-indarkeria kasurik ezagutzen duzue Euskadin? Nolako indarkeria sexuala ezagutzen duzue zuon inguruan? Nork jasaten du?
6. Badakizu zer den zigorgabetasuna? Hitzari buruzko informazioa bilatu. Zer den dakizunean, zure ustez, nolako eragina du sexu-indarkeria kasuetan?
7. Inolako erantzukizunik daukagu emakume horiei gertatu zaienagatik edo Euskadin gertatzen den indarkeriagatik? Nola eragin genezake erabaki politikoetan sexu-indarkeriari bere horretan irauteko aukera ematen diotenean?

3.JARDUERA – MEZUAK SORTZEA

45 min.

Sexu-indarkeria sare sozialetan salatzeko eta zabaltzeko mezuak sortzea edo dokumentaleko protagonistentzako mezua eratzea (edozein formatutan: bideoa, argazkia, gutuna, marrazkia…), emakume zehatz batentzat edo taldeak aukeratutakoentzat. Mezuan Farmamundiri bidaliko zaizkio, hartzaileei mezuak helarazteko.

Euren mezuak ekoizteko eskatuko zaie ikasleei. Salaketarako mezuak egin ahal izango dituzte, gatazka armatuetako esparruan edo Euskadiko testuinguruan sexu-indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko edo kontzientziatzeko. Horretarako, sare sozialetan argitaratzen dituzten hausnarketekin eta salaketekin batera, dokumentala edo webguneko (https://lasquesobrevivimos.farmamundi.org/) beste material batzuk partekatu ditzaketela azalduko zaie. Era berean, testua, marrazkia, argazkia, gutuna, etab. Sortzeko eskatuko zaie, talde bakoitzak erabakitakoaren arabera dokumentaleko protagonista bati edo guztiei bidaltzeko.

Ikasleak 5 edo 6 pertsonako talde txikietan banatu, guztien artean salaketarako kanpaina txikia diseinatu dezaten.

Emakume bizarauleen segurtasuna dela eta, garrantzitsua da haien aurpegi eta izen osoak sare sozialetan ez argitaratzea. Farmamunditik dokumentalarekin lotutako irudi batzuk eskaintzen ditugu. Proiektuaren webgunea eta dokumentala bera mugatuta daude haientzat mehatxu izan daitezkeen eskualdeetan. Beraz, segurua da webgunea sara sozialetarako sortzen diren mezuetan aipatzea, hala erabakitzen bada.

EGIKARITZEA

1. HAIEN MEZUAREN HELBURU NOR IZANGO DEN ZEHAZTEA. Horrela, nolako hiztegia eta edukiak erabiliko ditugun, kanalak eta hashtag-ak zeintzuk izango diren zehaztu ahal izango dugu.

2. EUREN MEZUAK EGITEA.
   a. Salaketarako mezuak: Mezu guztiek ikus-entzunezko baliabidea (beti-beti emakumeen pribatutasuna errespetatuz) eta taldean sortutako mezu originala izango dituzte osagai. Talde bakoitzak bere salaketa-mezua igorriko du, baita bere mobilizazioa eta sexu-indarkeriako emakume biziraulen egoeragatik babesa ere. Mezua laburra izango da, errazago zabaldu ahal izateko. Dena dela, kolektiboa izan beharko denez, honako elementu hauek kontuan hartzea gomendatzen dizuegu:
      i. Salaketarako, jabekuntzarako eta adorerako mezuak izatea. Haien bizipenak erreskatatzen baditugu, helburua ez da inoiz haiek berriro biktika bihurtzea izango, bizitako basakerien aurrean izan dituzten lorpen personal eta kolektiboak nabarmentzea baizik.
      ii. Ahozko eta ikus-entzunezko lengoaia errespetukoa, inklusiboa eta baikorra izatea.
      iii. Hizkuntza-maila zaintzea, arruntegia izan ez dadin eta xede dituen hartzaileen arabera egokitu dadin.
      iv. Laburra, baina hausnartua eta sendoa izatea. Ez dira hitz asko erabili behar gauza interesgarriak esateko.
   b. Protagonistentzako mezuak: gutuna idatzi, marrazkia egin, argazkia edo bideoa bidali, hausnarketarekin, adore-mezuekin, collagearekin edota olerkiekin batera. Farmamundin, haien hizkuntzara itzuliko ditugu mezuak eta helaraziko dizkiegu.

3. MEZUEN ZABALKUNDEA.
   a. Sare sozialak erabiliko dira, gerrako arma moduan erabilitako sexu-indarkeriaren aurkako salaketarako eta sentsibilizaziorako mezua igortzeko. Gogoan izan segurtasuna dela eta ezin ditugula emakumeen argazkiak erabili. Dena dela, haien argazkiak erabili ahal izango dira, bertan nor diren jakiterik ez dagoen kasuetan. Edonola ere, webgunea bera aipatu ahal izango da, bere edukia mugatuta dagoelako protagonistentzat mehatxu izan daitezkeen herrialdeetan. Era berean, gaiarekin lotutako erakundeak ere aipatu ahal izango dira; esate baterako, @farmamundi, ikastetxea bera, instituzioak, helburu diren taldeak edo gaia jorratzen duten tokiko erakundeak (informazioa bilatu mezua zabaltzen hasi baino lehen). Honako hashtag hauek erabili ahal izango dira: #lasquesobrevivimos #GerrarenAurka #InpunitatearIEz
   b. Rafiki, Elyseen, Diana, Cecile, Jeanine eta Mateserarentzako mezuak **euskadi@farmamundi.org** helbidera bidali ahal izango dira; edo, modu fisikoan, ordea, helbide honetara: Juan Antonio Zunzunegui etorbidea 5bis, 3.bulegoa. 48013 Bilbo, Bizkaia.